

B1

1. BATXILERGOA AUKERAGAIAK

✓ ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA: FRANTSESA

Batxilergoan bigarren hizkuntza frantsesa ikasgaia ikasleen komunikaziorako gaitasuna hobetzeko pentsatua dago.

METODOLOGIA

Proiektuen bidez lantzen ditugu unitate ezberdinak.

HIZKUNTZA ESKOLA

Batxilergoko lehenengo kurtsoan B1 mailarako prestatzen ditugu ikasleak, beti ere bakoitzaren bidea errespetatuz; hau da, bigarren kurtsoan ere presta ditzakegu maila horretarako, edo titulatu dutenekin B2 maila prestatzen hasten gara.

EMAITZAK

Egia esan, oso maila linguistiko polita lortzen dute institutuko bukaerarako eta Hizkuntza Eskolako emaitzak beti izaten dira oso onak.

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

Urtero Bordelera hiru eguneko bidaia egiten dugu. Bidai honen helburua anitza izaten da:

- Soziokulturala
- Linguistikoa
- Bizikidetzak: Lekaroz eta Doneztebeko ikasleen harremanak sendotzeko

✓ DISEINU GRAFIKO DIGITALA

Gaur egungo curriculumaren osagarri izan nahi du irakasgai honek, arlo zientifiko/teknologiko zein humanistikoko ikasleak elkartuko lituzkeena. Nahitaezkoa bihurtu den gaitasun digitala indartzera dator irakasgai hau.

Proiektu honetan artearen esparru desberdinak aztertuko ditu edizio grafikoaren bidez: arkitektura, diseinu artistiko eta industriala, bideogintza...

Helburuak

- Irudiaren adierazkortasuna eta ikusi bidezko komunikazioaren estrategiak lantzea: diseinu grafiko, kartelgintza, diseinu industriala, seinaleak, e. a.
- Irudien ediziorako software libreen erabilera lantzea.
- Arte garaikide eta diseinu sorkuntzak ezagutu eta baloratzen ikastea
- Ikasleak behar eta lanei modu sortzailean aurre egiten trebatzea.
- Informazio grafiko-bisualaren balioaz jabetzen eta hauen sorkuntzan trebatzea.
- Elementu digital eta baliabide grafiko tradizionalen uztartzea

✓ INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (IKT).

Ikasleek arlo honetan gaitasun digitalak garatzen dituzte, eduki propioak sortzen eta informazio egiazkoa eta kontrastatua bereizten eta hautatzen ikasten dute.

Ikasgaia OINARRIZKO JAKINTZEN zazpi bloketan egituratzen da, eta bloke horien edukiak elkarrekin lotu eta txertatzen dira ikaskuntzako egoera konpetentzietan eta jarduera edo proiektu praktikoetan.

- 1) «**IKTen historia, bilakaera eta erabilera**» blokeak informazioaren eta komunikazioaren teknologien sorreran eta bilakaeran bateratu diren teknologien oinarritzko ezagutza garatzen du, arreta emanez azken hamarkadetako eraldaketa ekonomiko, sozial eta kulturaletan izan duten eraginari eta teknologia horiek erabiltzearen abantailez eta izan ditzaketen arriskuez jabetzeari.
- 2) «**Hardwarea, softwarea, kodeak eta lengoia digitalak**» izeneko blokea informatika-tresnerien funtzionamendua ulertzeko beharrezkoak diren oinarritzko jakintzak biltzen ditu: erabilitako magnitudeak eta neurketa-unitateak, IKTen erabiltzen diren kode digitalak, ekipo bat osatzen duten hardwareko elementu fisikoak eta jarduera antolatzen duten sistema eragileak eta oinarritzko aplikazioak.
- 3) «**Informazioaren tratamendua eta kudeaketa**» izeneko multzoan datuen tratamendurako aplikazioak erabiltzen dira, hala nola kalkulu-orria edo datu-baseak kudeatzeko sistemak, eta elkarlaneko proiektuetan informazioa antolatu eta partekatzen da aplikazio seguruen bidez.
- 4) «**Edukiak sortzea, biltegitzea eta zabaltzea**» blokea hainbat informatika-aplikazio ezagutzeari eta erabiltzeari buruzkoa da: testua eta irudia editatzekoak, argazki-ukituak egitekoak, ikus-entzunezko sorkuntzakoak eta 3Dko sorkuntzak edo animazioak egitekoak. Edukiak Internet bidez zabaltzeko eta partekatzeko erabiltzen diren aplikazio eta lengoia informatikoak ere barne hartzen ditu.
- 5) «**Informatika-sareak**» blokeak Internet sarea osatzen duten elementuak erakusten ditu, bakoitzak funtzionamendu globalean betetzen duen zeregina ezagutzeko. Sare lokaletan erabiltzen diren konexio- eta segurtasun-elementuak eta VPN konexioen ezaugarriak ere erakusten ditu.
- 6) «**Programazio-lengoaiak**» blokean, problema jakin baterako irtenbide informatiko bat diseinatzeko aukera ematen duten programazio egituratuaren oinarritzko printzipioak biltzen dira. Hizkuntza jakin bat aukeratu, horiek guztiek komunean dituzten kontzeptuzko egiturak praktikan jartzen dira eta oinarritzko jakintzak eskuratzen dira aplikazio-proiektu bat eginez.
- 7) «**Sortzen ari diren teknologiak**» blokeak IKTen esparruan sortzen ari diren aplikazioen ikuspegi orokorra ematen du. Hemen sartzen dira adimen artifiziala, ikaskuntza automatikoa eta sareetako komunikazio eta identitate segurueterako kriptografian oinarritutako aplikazioak.

METODOLOGIA:

Lankidetzarako programa eta zerbitzu ezberdinak erabiliko ditugu, talde lanaren eta jakintza kolektiboaren garrantzia azpimarratzen. Egin beharreko guztia klase orduetan egingen da modu praktiko batean.

✓ ZINEA ETA HISTORIA.

- **Batxilergoko ibilbide guztientzako aukerako irakasgaia da.**
- Irakasgaia **bederatzi** gaitan zatitua dago. **Metodologiak teoria eta praktika** uztartuko ditu; **oinarria filmeak ikustea** izango delarik.
- Funtsezko gaitasunak lantzeko bidea ematen du; bereziki **hizkuntza komunikaziorako kompetentzia eta kompetentzia digitala**.
- **Hedabideak** gure gizartearen informazioa, kultura eta ideologia zabaltzeko tresnak dira, horregatik, ikasleek **izpiritu kritikoa** izatea funtsezkoa da mezuak interpretatzeko.
- **Historiarekiko interesa** pizten laguntzen du. Horrela, ikasleek hobeto ulertzen dute iragana eta iragana behin ongi ezagututa, oraina aztertzeko balio du ere, etorkizuna eraikitzerako orduan.
- Irakasgai bakarra da **Historiaurretik gaur egunera** bitarteko bidea egiten duena.
- Ikasgaiaren **ebaluazioa** proiektuetan oinarrituko da.

✓ TEKNOLOGIA ETA INGENIERITZA I.

Gaur egungo gizartean, **ingeniaritza enpresek egiten duten teknologiaren garapena da**, bilakaera soziokulturala egituratzeko ardatzetako bat. Azkenaldi honetan, **teknologiak –bharrei soluzio eman nahi dien ezagutza eta teknika multzo gisa ulertuta–** gero eta garrantzi handiagoa du gizartearen hainbat esparrutan, oinarritzko ondasunen sorreratik hasi eta komunikazioetaraino.

Horretarako, herritarrek jakintza zientifikoak eta teknikoak izan behar dituzte, gai jakin batzuen aurrean jarrera kritikoa eta eraikitzaileak izateko oinarri gisa baliatzeko, eta modu arduratsuan, sortzailean, eraginkorrean eta konprometituan jarduteko gai izan daitezen, sortzen diren beharrei konponbidea emateko.

Alde horretatik, **Teknologia eta Ingeniaritza ikasgaiak** jakintza zientifikoak eta teknikoak bateratu nahi ditu kompetentzien ikuspegitik, ikasleei laguntzeko Batxilergoko helburuak lortzen eta funtsezko kompetentziak eskuratzen.

Ildo horretan, ekoizpen ingurunearen ezagutza panoramikoa emanen zaie ikasleei, errealitatea kontuan hartuta eta produktu batek dakarren guztiari helduta: sorrera, bizi-zikloa eta lotutako beste alderdi batzuk. Ezagutza horrek aukera eremu zabala ematen die, diseinu eta garapen prozesua ikuspegi industrialetik ulertzea errazten baitu, bai eta neurriera edo eskaeraren arabera prototipoak egiteko “maker” edo DiY («*egin ezazu zeure kabuz*») *filosofia* berrien aplikazioaren bitartez ere.

Ikasgaia oinarritzko sei **jakintza bloketan** egituratzen da, eta bloke horien edukiak elkarrekin lotu behar dira kompetentzia ikaskuntzako egoerak eta jarduera edo proiektu praktikoak garatuz.

«**Ikerketa eta garapen proiektuak**» blokeak bi ardatz ditu: proiektuen metodologia –produktuak asmatzera eta sortzera bideratua dago– eta horien bizi-zikloa.

«**Materialak eta fabrikazioa**» blokeak materialak hautatzeko irizpideak eta horiek eraldatzeko eta soluzio teknologiko jasagarriak lantzeko teknika egokienak lantzen ditu.

«**Sistema mekanikoak**» eta «**Sistema elektrikoak eta elektronikoak**» blokeetan, berriz, ardatzak dira proiektuak egiteko edo soluzio teknikoak asmatzeko oinarri gisa erabil daitezkeen elementu, mekanismo eta sistemak.

«**Sistema informatikoak**» blokeak informatikarekin lotzen diren jakintzak biltzen ditu –hala nola testu-programazioa eta sortzen ari diren teknologiak–, proiektu teknikoetan aplikatzeko.

«**Sistema automatikoak**» blokean sistema teknikoak eguneratzen dira, simulazio edo muntatzearen bidez modu automatikoan kontrolatzeko. Gainera, sortzen ari diren teknologiek kontrol sistemetan dituzten aukerak ere kontuan hartzen dira.

«**Teknologia jasagarria**» blokeak gaiari buruzko ikuspegi bat ematen die ikasleei, Garapen Jasangarrirako Helburuetako helburu batzuekin bat datorrena.

Ikasgaiari ikuspegi kompetentziala emateko helburuarekin, komenigarria da **jakintzak proiektuetan bildu ahal izatea**, testuingurua duten ikaskuntza egoeren inguruan. Horietan, ikasleek beren ezagutzak eta trebetasunak aplikatu ahal izanen dituzte premia jakin bati soluzioa emateko, gero eta konpromiso handiagoko jarrerarekin.